# a.4 OINARRI-OINARRIZKO HIZTEGIA ETA HAINBAT EGITURA

## > Gutuna

Kaixo lagunok,

Zer moduz zaudete? Eskola-egunak aurrera doaz eta hasi zarete zenbait gauza euskaraz nola esan ikasten.

Badakit hiztegi-koadernoa egin duzuela eta hasi zaretela hitzen horma sortzen.

Nik lantxo batzuk bidali dizkizuet hainbat hitz eta esaldi euskaraz esaten ikasteko. Gero, hiztegi-koadernoan gordeko dituzue, zalantzaren bat duzuenean begiratzeko. Hitz berriak ikasi ahala jar itzazue hitzen horman eta gorde hitzen kaxan..

Espero dut bidalitako lanak gustatzea.

Izango duzue nire berri.

JOXE